


BILDU Udal Taldeak Oñati Zero Zabor eta Oñatiko AHT-ren aurkako taldearen MOZIO hau sartzen du, Osoko Bilkuran eztabaidatua izan dadin.



**"GIPUZKOAN AZPIEGITURA-LAN HANDIAK GELDIARAZTEAREN ALDEKO MOZIOA"**

Hainbat proiektu eta azpiegitura-lan erasokorren oposizioan eta herritarren ongizatea nahiz ingurumenarekiko errespetua ardatz izango dituen ereduaren alde urteetako lana daramaten herri mugimenduek eta taldeek honako mozio hau aurkezten dugu udalaren osoko bilkuran eztabaidatua izan dadin. Herri mugimenduok, elkarturik, Gipuzkoan azpiegitura-lan handiak gelditzeko eta garapen ereduaren aldaketa sakon baten beharra aldarrikatzeko informazio, hausnarketa, eztabaida eta mobilizazio dinamika berria jarri dugu abian, eta helburu hori aurrean, manifestazio bateratua deitu dugu halaber, otsailaren 4ean Donostian.

Esan bezala, baterako ekimen honek azpiegitura-lan handiak geldiarazteko eta egungo garapen-eredua aldatzeko beharra aldarrikatu nahi ditu, hain zuzen ere ingurumenean, ekonomian eta gizarte arloan kalte larriak eragiten dituzten era guztietako azpiegitura-lan handien alde presionatzeko azken hileotan Gipuzkoan egiten ari diren kanpaina politiko eta mediatikoari erantzuteko (tartean daude AHTa, errauskailua, Jaizkibelgo superportua, Oiartzun-Lezo-Gaintxurizketako plataforma logistikoa, Donostialdeko Metroa, Hondarribiako aireportuaren hedapena, Zubietako makro-espetzea, ingurabideak, e.a.).

Jakina denez, Gipuzkoako lurraldeak, hain neurri txikikoa eta industria-garapen handikoa izanik, azpiegituren hedapen izugarria jasan du iraganeko azken urteen izandako hazkunde eta globalizazio ekonomikoaren aroan. Azpiegituren hedaketa horrek, lurraidea neurrigabe hiritartzeko eta metropolizatzeko joerekin batera, ingurumen naturalari eraso gogorak, zonalde erruralen eta nekazaritzako lurren galera, ingurumenaren artifizializazio gero eta handiagoa, kutsadura, eta orohar, narriadura ekologiko nabarmena jasan duen lurralde txiki honetan eta herritarrengan eragin kaltegarriak sortu ditu, hala-holako irudi-kanpainak eta lorategiz hornitzeko lanek apenas disimulatzeko gai direnak.

Azpiegitura-lan handiak eraikitzeke egitasmo horiek modu sobera inposatzailean sustatu dira eta erabakiak hartzerakoan ez dute herritarren partehartzea eta kalteturiko udalerrien parte-hartzea kontuan hartzeko gaitasunik izan. Gure ustez funtsezkoa da egungo garapen-eredua aldatze aldera orain arte inoiz burutu ez den gizarte eztabaida hori bultzatzea.

Azpiegitura-lan handietan eginiko diru-baliabideen xahuketak eta inbertsio itzelek nolako zulo ekonomikoa utzi duten azpimarratu beharra dago. Azpiegitura egitasmo handien zurrubide ofiziala erretolikatuko "interes orokorra"ren izenean eta errentagarritasun sozio-ekonomikoari eta enpleguaren sorrerari dagozkien hipotesi sistematikoki faltsuen gainean eraikia izan da.

Empresa-interes jakin batzuei mesede egitearren hainbat gizarte-premiari erantzuteko ezinbestekoak diren baliaabideak eta ekonomiako, gizarteko eta kultur arloko beste iharduerek behar dituzten laguntzak zurrupatu dituzte.

Erantzun guztiak instituzioetan daudela sinestea okerra litzatekeela badakigu, gure ustez, lorpenak inoiz erdiestekotan, lehenik eta behin jendartearen kontzientziaren eta ekimenaren emaitza izango dira. Hortaz, azpiegitura-lan handiak eta proiektu txikitzaileak gelditzeko borrokari eutsi behar diogu.

**Gure lurraldean eragiten jarraitzen duten gizarte-ingurumen gatazkak:**

Zentzu honetan, gure lurraldean eragiten jarraitzen duten era askotariko gizarte-ingurumen gatazkei buruz ohartarazi behar dugu:

-AHTri dagokionez, zaila da Gipuzkoako lurraideari eta orografiari gutxiago egokitzen zaion proiekturik aurkitzea, eta desegokitasun horrek bereziki larriak egiten ditu azpiegitura erraldoi honen kostu ekonomikoak eta gizartean nahiz ingurumenean eragiten dituen kalteak, bai obrak egiteko unean eta bai funtzionamenduan. Gainera, esan beharra dago orain arte obretan egindako gastua egitasmo osoan egin beharreko guztiaren gutxi gorabehera % 15-20a dela, eta ondorioz, "Euskal Y"-aren obrak gelditzeko erabakia atzeratu beharrean, oraingo unea egokia dela azpiegitura megalomano hori gelditzeko. Jaurilaritzak, ordea, 2012. urtean AHTren Gipuzkoako zatientzat 380 milioi euro zuzendu asmo ditu, gastu sozialetan murrizketa oso gogorak iragarri dituen bitartean.

- Zubietako errauskailua dela eta, Usurbilgo Itunak eta herri mugimenduek eskatutako geldirazpena eta luzamendua atzeratzen dira. Gipuzkoa osoan, geroz eta udalerrri gehiagotan atez-ateko sistemaren bidez hondakinen gaikako bilketa sustatu beharko litzateke, eta gaur egungo zabortegi kutsakorrek ixteko eta erraustegirik ez eraikitzeke aukera emango duen Zero zabor ereduaren garapena bultzatu beharko litzateke. Horrela hondakinen prebentzioa, birtziklapen erreala eta kudeaketa arrazionalago baten aldeko apustua egingo genuke

-Horrez gain Pasaiaiko kanpo portua, A-8 autopistaren Bigarren Gerrikoa, Zubietako makro-espetzea, Mutrikuko portuko dikea luzatzeko lanak, tentsioa handiko linea, Arabako gasaren ustiaketa eta Euskal Hiria-ren proiektua ere hor ditugu

Hori denagatik, Udal honi ondorengo erabaki hauek onar ditzan eskatzen diogu:

**Erabakiak:**


1. Udal honek herritarren partehartzea bermatuko duten prozesuak abian jartzeko konpromisoa hartzen du, herritarrek bai udalerriri zuzenean eragiten dioten azpiegitura-lan handien auzian eta bai Gipuzkoan udalerrri nahiz eskualde gisa sustatu beharreko garapen-ereduari buruz debatzeko eta azken batean erabakitzeko aukera izan dezaten.

2. Udal honek Gipuzkoako azpiegitura-ian handiei buruz antola litezkeen mahai-inguru eta eztabaida ekimen desberdinak sustatzeko konpromisoa hartzen du
3. Udal honek AHTren eraikuntzaren kontrako jarrera adierazten du.
4. Udal honek Zubietako erraustegiaren kontra egonez, Usurbilgo itunak eskaturiko luzamenduarekin bat egiten du
5. Udal honek Pasaiaiko Superportuaren egitasmoaren aurkako jarrera adierazten du, baita Kanpo Portuari atxikitako Oartzun-Lezo-Gaintxurizketako plataforma logistikoaren kontrako iritzia agertu ere.
6. Udal honek A-8 autopistaren Bigarren Gerrikoa gehiago luzatzeko asmoaren aurkako jarrera adierazten du.
7. Udal honek Zubietako makro-espetzea eraikitzearen kontrako jarrera adierazten du, eta honi dagokionean, Eusko Legebiltzarrak 2006ko otsailaren 23an onarturiko Ez Legezko Proposamenarekin bat egiten du, zeinak, makro-espetzeak desagertzearen aldeko jarrera azaltzeaz gain, 4.puntuan Espainiako Espetxeetako Zuzendaritza Orokorrari "gisa horretako Zentroak, Zubietan planteaturikoa kasu, EAEn eraikitzeko asmoa bazter dezan" eskatzen dion, horren ordez "EAEko lurraide bakoitzean Intsertzio Sozialerako Zentroak abian jartzeko".
8. Udal honek bat egiten du aurrez aurre ditugun ingurumen-gatazka berrien larritasunaz ohartarazten ari diren ahotsekin, hala nola Nafarroatik eta Bizkaitatik Ezkio-ltsasoraino tentsio handiko lineak eraikitzeko proiektuak direla eta, Araban gasa Fracking izeneko teknikaren bidez gasa ustiatzeko planaren auzian, baita DOT-Euskal Hiria lurralde-antolamenduaren gidalerroak berehala berraktibatzeko Jaurlaritzak dituen asmoen inguruan ere, ekologikoki jasangaitza den eta sozialki zalantzan jarritako eredu desarrollista eta neoliberala babesten dutelako horiek.
9. Udal honek 2011 Martxoaren 31ko osoko bilkuran materia organikoaren bilketaren inguruan harturiko erabakia bertan behera uzten du eta hondakinen kudeaketa
10. Udal honek osailaren 4ean, larunbarekin, Donostian, arratsaldeko 17'30etan Boulevardetik abiatuta egingo den manifestazioarekin bat egiten du, eta herritarrei partehartzeko deitzen die.

Eskaera honen sinatzaileek Udal batzarrari akordioa puntuz-puntu bozkatzeko aukera ematen diote, hala nahi izanez gero.

**Sinatzen dute:**

Oñati Zero Zabor  
Oñatiko AHT-ren aurkako taldea"

A handwritten signature in black ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke extending to the right.